AZPEITIA

# Igerileku estali gabe berriak arrakasta handia izan du

## Ume, gazte eta guraso ugari izan dira bertan, uretan eta igerilekuko zelaietan, uda honetan

Uztailaren 14an ireki zuten igerileku estali gabe berria. Ume gehienek ilusioz itxaron zuten nahi baino beranduago iritsi zen eguna. Baina azkenean ordua iristean gauzak ez ziren nahi bezala atera.

Izan ere, eguerdian, inaugurazio ekitaldian ateri egin bazuen ere, laster euria hasi zuen, eta Azpeitiko haurrek egun horretan ezin izan zuten igerileku berriaz nahi adina gozatu.



▪▪▪ Azpeitiko igerileku estali gabe berrian jende ugari izan da iragan udan.

### Lau gune

Kanpoko igerileku berri hau igerileku estalien atzealdeko zelaian eraiki dute. Lau gunetan banatua dago: umeentzako gunean, bi txirrista eta perretxiko dutxa bat daude; gazte eta helduentzako lasaitasun gunean, jakuzi eta ur-jauzi bat aurki daitezke; ume eta gazteentzako jolas gunean, berriz, bi txirrista eta spirotubo bat dauzkate; eta azkenik igeriketa gunea dago, 33 metroko luzera eta 1,20 eta 1,80 metro bitarteko sakonera duena. Igerilekuaren inguruan, berriz, eguzkia hartu nahi duenak zelai bat du.

Aurtengo udan, eguzkiak zertxobait berotzen zuen bakoitzean, igerilekuko zelaiak eta urak adin guztietako herritarrez betetzen ziren. Batzuetan, zelaian etzateko lekurik ere ez zen izaten, hainbeste jenderen artean. Izan ere, igerileku berri honek beste aukera berri bat eskaintzen die azpeitiarrei herrian bertan, egunero hondartzara joateko autobusa edo autoa hartu beharrean.

Igerilekua egunero irekitzen zen, astelehenetik igandera, baita abuztuan eta herriko jaietan ere. Goizeko 11etatik arratsaldeko 20ak arte egoten zen irekita. Baina haurrak eskolara joaten eta eguraldia hozten hastearekin batera, irailaren 15ean, ateak itxi behar izan zituen hurrengo urtera arte.

Igerileku itxiko edo kiroldegiko bazkideak dohainik sartu dira udan, bazkide txartelarekin. Beste guztiek, ordea, sarrera ordaindu behar izan dute barrura sartzeko.

IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

AZKOITIKO IKASTOLA
XABIER MUNIBE
Estrada auzoa, 115 - Tel.: 943 85 06 46 / 18 89
BHI • E-mail: 012985aa@hezkuntza.net
LH • E-mail: 012319aa@hezkuntza.net

AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI
Euskal Herria, 50 - Tel.: 943 81 26 97
E-mail: keikastola@jet.es

*Kalitatezko euskal irakaskuntza Urola Bailara osoari eskaintzeko konpromisoarekin*

Zure aisialdirako gida
www.Egunkaria.com/agenda

LIBURUETAN AUKERARIK ZABALENA
IRATZAR
LIBURUDENDETAN
Nagusia, 46
☎ 943 85 32 62 -Faxa: 943 85 26 01- AZKOITIA
Foru ibil., 3
☎ 943 81 05 21 - AZPEITIA


FLOREAGA SALESTAR IKASTETXEA
• 2 URTETIK 16 URTERA ARTEKO HEZKUNTZ PROIEKTUA
• JANGELA, ESKOLAZ KANPOKO ETA ASTIALDIKO EKINTZAK
Izarraitz, z/g • Tel.: 943 853 043 - Faxa: 943 857 021 • AZKOITIA • E-mail: floreaga.sdb@infonegocio.com

PILDAIN
inmobiliaria
Tel.: 943 81 21 67
Faxa: 943 15 07 74
e-mail: pildain@wanadoo .es
Elizkale, 22
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)


estudio d3
ENRIQUE EGUINO
Arana Goikoa, 1
Tel.: 943 810 888 • AZPEITIA


BEREZITASUNA TXIMINIETAN
HODI ERREFRAKTARIOEN PRESTAKETA
BASTIDA Tximiniak
Urrestillako errep., 12 - 184 P.K. • Landeta auzoa
Tel.: 943 81 32 87 • Faxa: 943 15 11 33 • 20730 AZPEITIA Gipuzkoa